

**1/2023 TXOSTENA, OTSAILAREN 22KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN  
AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****GAIA: LEHENDAKARITZAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA  
EZARTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Lehendakariaren 18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Honako hau dauka ezarrita 3. artikuluan:

«3. artikulua.– Lehendakaritza.

1.– Autonomia Estatutuak, Jaurlaritzaren Legeak eta beste lege-xedapen batzuek lehendakariari ematen dizkieten egitekoak bete ahal izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoen laguntza izango du lehendakariak. Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura eta egitekoak dekretu bidez zehazten dira.

[...]

3.– Lehendakaritza sailtzat joko da aurrekontuetarako eta kontrataziorako».

Halaber, urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretua ere onartu zen, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa. Dekretu horretan, honela dago egituratuta Jaurlaritzaren Lehendakaritza: hiru idazkaritza (Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia, eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia); eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua.

Gerora, lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretuak lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretua aldatu zuen (EAEko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzekoa), eta Lehendakaritzari esleitu zitzaion gazteria-arloa, hasiera batean Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitu zitzaiona.



Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua onartu zenetik bi urte igaro diren honetan, egitura egokitu behar zaio eta organo batzuk izenez aldatu; gainera, Lehendakaritzako zuzendaritzari funtzio bestelako funtzioa ezarri behar zaie. Horrenbestez, dekretu-proiektu honek urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretua aldatzea proposatzen du, batetik, haren egitura eta edukia egokitzeko, gazteria-arloa Lehendakaritzari esleitu zaiolako, eta, bestetik, Gazteriaren Zuzendaritza eta horren mendeko organoak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusira atxikitzeko.

Lehendakaritzak, 2023ko urtarrilaren 26an, txosten bat egiteko eskatu zion batzorde honi, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen dekretu-proiektuaren inguruan.

Espedientea Tramitagune prozeduren izapidetze elektronikorako aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da, DNCG\_DEC\_4605/22\_01 erreferentziarekin, eta honako dokumentu hauek ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- 19/2022 Dekretua, urriaren 5ekoa, lehendakariarena, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena.
- Justifikazio-memoria, 2023ko urtarrilaren 18koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena.
- Memoria ekonomikoa, Lehendakaritzako Zerbitzuen zuzendariarena.
- 3/2023 Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, lehendakariarena, dekretu-proiektuari alde aurreko onarpena ematekoa.

## **II.- ESKUMENA.**

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak derrigor eman behar du txosten hau, dekretu-proiektuak kontratazioaren esparruan ere eragiten duelako eta Gobernu Kontseiluak onartu behar duelako. Hala egin behar dela jartzen du uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan, 27. artikuluko a) letrako 2. zenbakian, eta dekretu horretan dator zehazturik Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea; (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua).

Bestalde, 116/2016 Dekretuko 30. artikuluko 2. apartatuaren arabera, egitura organiko eta funtzionalak arautzeaz den bezainbatean, Batzordearen kontsulta-eginkizunak



Batzorde Iraunkorrak bete behar ditu. Txostenean, bestalde, proiektuaren alderdi batzuk bakarrik jorratuko dira, hain zuzen ere, sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten diotenak, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoari dagozkion gaietara iristen baita soilik.

### III.- JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK

Dekretu-proiektuak azalpen-zatia, xedapen-zatia (hamaika artikulukoa) eta azken xedapen bat ditu. Azalpen-zatian labur adierazten dira Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala aldatzeko arrazoiak eta aldaketaren zergatiak.

Aldaketak bost taldetan bereiz daitezke:

1. Lehendakaritzaren egitura egokitzea, organo batzuei izena aldatu eta zuzendaritza bat desegiteko (dekretu-proiektuaren hirugarren, laugarren eta zortzigarren artikulua).
2. Gazteria-arloa Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari esleitzea (dekretu-proiektuaren lehen, bigarren, bosgarren, hamargarren eta hamaikagarren artikulua).
3. EA Eren Frantziako Ordezkaritza egitura-dekretuan sartzea (hirugarren eta bederatzigarren artikulua).
4. Funtzio berriak esleitzea Koordinazio eta Gizarte Komunikazioko Idazkaritza Nagusiari prospekzio soziologikoan (zazpigarren artikulua).
5. Zuzendaritzen funtzio berri bat ematea (seigarren artikulua).

Aztergai den dekretu-proiektuaren artikuluen ordenari erreparatuta, aldaketa esanguratsuenak hauek dira:

Lehenengo artikulua. - Xedapen-zatiko bosgarren paragrafoa aldatu da, eta gazteria-arloa erantsi zaio Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren jardun-arloei. Aldaketa horren bidez, besteak beste, Gazteriaren Zuzendaritza eta horren mendeko organoak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusira atxikiko dira. Horretarako, aldatu egin behar da 5/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa.

Bigarren artikulua.- Urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 1. artikuluari «i.bis Gazteria» letra gehitu zaio, jardun-arlo hori Lehendakaritzari esleitura.



Hirugarren artikulua.- Aldatu egin da 2.1 artikulua, egiturari buruzkoa, eta idazkera berrian hauek ere jasoko ditu:

- Organo batzuei izena aldatzea (berariaz adierazten da laugarren artikuluan).
- Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza desegitea.
- EAEren Frantziako Ordezkaritza sartzeari (abenduaren 28ko 258/2021 Dekretuak sortu eta arautu zuen).
- Gazteriaren Zuzendaritza Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari atxikitzea.

Laugarren artikulua.- Izena aldatu zaie sei organori, eta urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuan egiten zaizkien aipamenak zuzendu dira, egungo egoerara egokitzeko:

- Idazkaritzaren eta Erakundeekiko Harremanen Zuzendaritza, aurrerantzean, Kabinete Zuzendaritza izango da.
- Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, aurrerantzean, Koordinazio eta Gizarte Komunikazioko Idazkaritza izango da.
- Komunikazio Zuzendaritza, aurrerantzean, Gizarte Komunikazioko Zuzendaritza izango da.
- Kanpo Harremanen Idazkaritza Nagusia, aurrerantzean, Europar Batasuneko eta Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusia izango da.
- Kanpo Harremanen Zuzendaritza, aurrerantzean, Kanpo Ekintzako Zuzendaritza izango da.
- Europako Gaien Zuzendaritza, aurrerantzean, Europar Batasunerako Zuzendaritza izango da.

Bosgarren artikulua. - Atxikipenei buruzko 4. artikuluari g) letra gehitu zaio, Gazte Informazio eta Dokumentazioko Koordinazio Zentroa Lehendakaritzako organo izateko aurrerantzean. Otsailaren 2ko 14/1988 Dekretuak arautzen du organo hori, eta Gazteriaren Zuzendaritzari atxikita dago.

Seigarren artikulua.- Funtzio berri bat esleitu zaie zuzendaritzei. Aldaketarekin, b.bis) letra gehituko zaio Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuari (urtarrilaren 19ko 5/2021), zehazki, 6. artikuluari, eta, hala, zuzendaritzek kontratu txikien zenbateko berdineko edo txikiagoko gastuak baimendu ahal izango dituzte.

Zazpigarren artikulua.- j) eta k) letrak gehitu zaizkio 8.1 artikuluari. Memorian eta txosten honek aztergai duen dekretu-proiektuaren testuaren azalpen-zatian adierazten denaren



arabera, Azterlan Kabinetearen Zuzendaritza deuseztu egin da. Honela geratuko da idatzita 8.1 artikulua hori:

«j) Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez, behar diren azterlanak, txostenak eta jarduerak egitea, Lehendakaritzak gizarte-errealitatearen egoeraren eta bilakaeraren berri izan dezan.

k) Aurreko 8.1.j) artikuluan esleitutako funtzioen esparruan, Koordinazio eta Gizarte Komunikazioko Idazkaritza Nagusiaren titularrari dagozkio 6. artikulua zuzendaritzei esleitzen dizkien funtzio orokorrak».

Zortzigarren artikulua.- Ezabatu egin da 9. artikulua, Azterlan Kabinetearen Zuzendaritzari buruzkoa.

Bederatzigarren artikulua.- Aldatu egin dira urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 19. artikuluko 1. eta 2. apartatuak, EA Eren Frantziako Ordezkaritza sartuko dela eta (abenduaren 28ko 258/2021 Dekretuaren bidez sortu eta arautu zen).

Hamargarren artikulua.- j) letra gehitu zaio 20. artikuluari, gazteentzako politika publikoen sustapenari loturiko funtzioak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiari esleitzeko.

Hamaikagarren artikulua. Artikulu berri bat sartu da, 22. artikulua, bi apartatukoa, Gazteriaren Zuzendaritzari esleitutako funtzioak barne hartzeko. Esan bezala, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusian sartuko da Gazteriaren Zuzendaritza.

Azkenik, azken xedapenak indarrean jartzearen aipamena egingo du.

Kontratazio publikoari eragiten dioten alderdiei dagokionez, dekretu-proiektua antolamendu-izaerakoa da eta funtzioak esleitzeko, argi eta garbi. Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuaren 6. artikuluari b.bis) letra gehituko zaio, eta funtzio berri bat esleitzeko zuzendaritzei: kontratu txikien zenbateko berdineko edo txikiagoko gastuak baimentzerik izango dute.

Horrenbestez, ez dezakegu ahaztu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118.1 artikuluan jasotakoa (lege horren bidez txertatzen dira Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentarauak). Aipatu



artikuluaren arabera, kontratu txikiak dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia dutenak, obra-kontratuak badira, edo 15.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia dutenak, hornidurako edo zerbitzuetarako kontratuak badira, 229. artikuluan Estatuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei dagokienez ezarritakoaren gorabeheran.

SPKLren 118.1 eta 118.2 artikuluen arabera, kontratu txikietan, espedientea izapidetzekotan, kontratazio-organoak txostena egin behar du, kontratua behar delako arrazoiak adierazita. Halaber, gastuaren onarpena eskatuko da, eta dagokion faktura espedienteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

Halaber, SPKLren 118.3 artikuluen indarrez, espedientean argi justifikatu beharko da kontratuaren objektua aldatzearen asmoa ez dela kontratazioaren arau orokorrak aplikatzeari izkin egitea, eta kontratistak ez duela izenpetu beste kontratu txikirik, banaka edo guztiak batera artikuluko honen lehenengo apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik. Kontratazio-organoak zorrotz egiaztatu beharko du arau hori ondo bete dela. Kanpoan gelditzen dira SPKLren 168.a).2.a artikuluan jasotako kasuak».

Horiek horrela, kontratu txikiaren figurak administrazio publikoei aukera ematen die administrazio publikoen premia batzuk bizkor asetzeko, alegia, zenbateko txiki eta iraupen laburrekoak izateagatik zerbitzua emateko jardun-gaitasuna eta lanbide-gaikuntza dituen enpresaburu bati zuzenean adjudikatu behar zaizkionak prozedura erraz eta arin baten bitartez (publizitate- eta lehia-printzipioak aplikatu beharrik ez dute, salbuespenez).

Hala ere, SPKLren 131.3 artikuluen arabera, zuzeneko kontratazioa da kontratu txikiak adjudikatzeko prozeduraren bereizgarria. Kontratazio mota horretan ez dago zertan lizitazioaren publizitatea egin, ez zertan lehia sustatu, baina, gardentasunaren mesedetan eta funts publikoen erabilera efizientea ziurtatzearen, komeni da publizitate-mekanismoak eta lehia sustatzekoak aplikatzea.

Batzorde honen azaroaren 13ko 12/2020 Txostenean jada adierazi zenaren arabera, kontratazio-organoak ugaritzeak eta horien barruan kontratu txikiak eta handiak bereizteak baliteke nahitaez (azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera) egin behar den kontratazio-plangintza globala zailtzea.



Horri lotuta, SPKLren 28. artikuluko 4. apartatuaren arabera, sektore publikoko erakunde guztiak behartuta daude aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko edo urte anitzeko aldietako kontratazio publikoko jardunaren programazioa egitera, eta kontratazio-plana ezagutaraztera aurretiazko informazio-iragarki bat argitaratuta. 134. artikuluan ezartzen da horretarako araubidea.

Gogoeta egin behar da kontratazio publikoaren antolaeraz, efikazago izan dadin premiak eta helburu politiko lehenetsiak asetzen, «administrazio onaren» printzipioa azpimarratuz sektore bakoitzean.

Kontratazio publikoaren plangintza egiteak kudeaketa publikoa hobetzea dakar: efikazia handitzen da baliabide publikoen erabileran; kostuak murrizten dira; erakundearen helburu estrategikoak betetzen dira; kudeaketa publikoa gardenagoa da; lizitazioetan lehiakideak ugaritzen dira, informazio nahikoa garaiz edukitzeagatik lizitazioetarako egoki prestatu daitezkeelako hornitzaileak; kontratu-prestazioak kalitate handiagokoak dira, etab.

Autoantolatzeko ahalmena errespetatu behar bada ere, kontuan hartu behar da kontratazio-organoen ugaritasunaren ondorioz gerta daitekeela hainbat kontratutan zatitzea bakarra izan beha lukeena, kontratazio-organo batek ez jakiteagatik besteak zer ari diren izapidetzen.

Ondore horietarako, Batzorde honen martxoaren 5eko 1/2020 Gomendioa ekarri behar da gogora; alegia, kontratu txikiak publizitate eta lehia askearen araubide orokorretik salbuetsita daude. Hori dela eta, ahalik eta gutxien erabili behar dira, eta prozedura irekiaren –sinplifikatua barne– bidez izapidetutako kontratu handiak zein esparru-akordioak aldeztu.

#### **IV. ONDORIOAK**

Azaldutako guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA emango diogu Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere proiektuaren edukia txosten honetan emandako gomendioetara egokitzen bada.